

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

Elgetako aldizkaria urtarrila 42zk.

Goibek

**XXI. mendera
begira**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Zein polita dagoen Elgeta!

Elgetako plazan nintzela, nire belarri-
ra hitz hauek etorri zitzaizkidan: Zein
polita dagoen Elgeta! (zuhaitzak
argiekin)

Hitzek, burua argitu eta pen-
tsarazi zidaten.

Ondo dago plaza dotore eta
ondo jantzita edukitzea, baina era
borean pentsatzen dut, gure eskolak
ere dotore eta ondo jantzita egon
behar duela eta haurrak zoriontsu eta
alai bizitzeko eta hazteko bere "jolas
leku" bat behar dutela.

Ia gure agintariak, zuhaitzen
moduan argitzen diren eta denok
benetan esaten dugun:

Zein polita dagoen Elgeta!

Zein polita dagoen eskola!

J.M.B.

N.A.: 15349536

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain
dago. Bertan kezka, iritzi, gal-
dera, etab. adierazteko aukera
duzue. Eskutitzak izena, bi
abizen, telefono zenbakia eta
NAN zenbakia izan beharko
ditu derrigorrez. Gero argita-
ratzerakoan, eskutitzaren egi-
leak hala eskatuko balu, ini-
zialak edo gaitzizena agertu-
ko dira. Ez da komeni eskuti-
tzen luzera 15-18 lerro baino
luzeagoa izatea. Bidali sobre-
an Goibekokale ipinita edo
bota udaletxe azpiko buzoira.

Egia zatietan baino ezin

Errealitatea zatikatua dago. Zatika agertzen
da, fotogrametan moduan. Argazkiak eurak
ere ez dira errealitateetik ateratako zatiak
baino. Ez dute errealitatea isladatzen. Baina
zer da errealitatea?

Maitasuna zer den, gorrotoa zer den
edo literatura zer den azaltzea moduko zaila
da. Nork egingo du aipatutako hitz ponpoxo-
en definizioa? Gutxi egin dezakete halako-
rik. Konbentzitzeko moduan inork, edo...

Asko ez dela elizan entzun nuen
Jainkoa maitasuna dela eta maitasuna edo
Jainkoa zer diren jakitzeko hauetan sinistu
beharra dagoela. Ez al da tranpa txiki bat?
Literatura zer den definitzeko literaturan
sinistu behar al dugu? Eta errealitateaz, erre-
alitate absolutuan sinistu behar al dugu?
Errealitate absolutuaren antzera egia absolu-
turik ba al da?

Egiak badira, egia zatiak izango dira.
Egia zatirik behar da izan, bestela, nola uler-
tu hirugarren munduan bizi dutena? Egia
zatitan ulertzea besterik ez zaigu geratzen.

Saiatzen gara (beldurragatik behar-
bada) hitz borobilegietan berba egiten. Gure
zalantzei aurre egiteko askok euskarria
behar izaten dute, kolektiboki antolatu, egia
osoetan sinistu, masa sozialen arabera mugit-
tu... Zer izan da presoen eskubideen alde
egindako agerraldia kolektibotan mugitzea
ez bada? Baina, kolektiboak mugitu arren
masa osoa edo zatia mugitu da? Egon al da
presoen arazoa konpontzeko giltza duen
zatia? Zatien beste adibide bat besterik ez da
izan Elgetako plazan zein Bilbon egindako
erreibindikazioa.

Baina ze demondre! Zatietan sinistea
(akaso aldarrikatzea) geratzen zaigu, egia txi-
kietan, onenak iruditzen zaizkigun egiatan,
lehendik, egia zatiak egia direnetik buruan
darabiltzagun egiatan.

Iban Arantzabal Arrieta

AENOR


ER

Empresa
Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 6



Gabon Jaiak

Oraindik Gabonen oihartzuna ixildu ez denean kendu ezin nabil haien oroitzapen mingotsa. Ez naiz Gabonzale, ez behintzat gaurko bertsio modernoan.

Ez dut ezer Gabon jaien aurka, baina bai horien inguruan sortzen den parafernalia guztiaren kontra.

Gehienek esango dute Gabonetan familia guztia elkartzen garela, elkartasuna antzematen dela, herriko dendetan diru gehiago gastatzen dela eta, ondorioz, jai politikak eta atseginak direla. Olentzero kaleetan zehar, Jaiotzak elizan, dendetan eta etxeetako sarreretan, Erregeak zaldi gainean izar gidariari jarraitzen eta nola pentsa liteke horrela!

Zenbat jende gogoratzen da Gabonen benetako esanahiaz? Olentzero edo Erregeen etorrerak ez al dira dirua bildu eta erregaloak jasotzeko aitzakia besterik? Txanpaina, kalimotxo, whiskya edo ez dakit zelako edari konbinaziorik edan gabe, posible al da urte zaharri amaiara ematea? Antena 3, Tele5 edo ETBk aurrez grabatutako programa inozenteei begira egotea al da familiako giro alaian urte berria hastea?

Ez da nire helburua Gabonetan jandako bixi guak, turroiak edo intxaur-saltsak kalterik egitea. Ezta urte berrian gastatutako bost mila ogerlekoetaz damutzea ere, baina ez al da gehiegikeria bat hau guztia?

Zorionak, ondo bukatu, pakea lurrean, hitz hutsak eta merkeak iruditzen zaizkit Gabonetan. Zergatik ahalegindu horiek esaten hiru egun barru ez bagara gogoratzen? Ez al da harritzekoa urte osoan barrutik hitz goxo bat esateko gauza ez dena Gabonetan halakoak hain ozenki botatzen ibiltzea? Ala, urtean esan eta egin ez duguna ezkutatu nahi izaten dugu horrekin?

Gabonak, familian egoteko edo afari on bat egiteko badira, zergatik ezin dute denok berdind ospatu? Gehienok jan eta edan gainezka egiten dugun bitartean beste asko, Gabonetan ere, gosez hiltzen dira. Barrionuevo eta Vera etxeratuak izan direnean gu Hator, hator, mutil etxera kantatzen ibili behar al gara oraindik?

Gabonetan gehien gustatzen zaidan eguna San Esteban da. Badakizue esaera: *Natibitxate ase ta bete, San Estebantxo lehen bezelatxo.*

Alberto Agirreazaldegia



“Bai euskarari” ostein



Askok gogoratuko duzue joan den urteko abenduaren 26an, euskararen alde Euskal Herriko hainbat estadiotan egindako topaketa. Egun hartan, milaka pertsonak beraien etorkizuna euskaraz bizi nahi zutela adierazi zuten. XXI. mendeko akordioa. Hizkuntza baten superbibentzia defendatzen zela uste nuen. Baina badirudi guztiontzat ez zela berdina izan.

Euskaraz hitzegiteak, askori abertzaletasun zentzu sakon bat garatzen digu barnean. Hizkuntza baten inguruan mugitzen den ondare kultural guztiaren jabe izateak, ezberdinak senti arazi gaitzake, euskaldunak, hizkuntza hori menderatzen ez dutenen aurrean. Horren ondorioz, euskararen arazoa politikoki tratatua izan da.

Baina ez dezagun geure burua engaina. Fabore eskasa egiten diogu euskarari arazo politikoekin nahastean. Etsaiak bilatzen dizkiogu, laguntasun falta daukanean. Horrela sentitu nuen nik behintzat Mendizorrotzan eta horrela adierazten dut hemen. “Euskal presoak, Euskal Herrira” ohikatzen zutenak (“Euskal Herrian, euskaraz”, beharrean), bat baino gehiago izan ziren. Eta ez dut uste hasierako esaldia gaizki ulertu zutelako izan zenik. Nahi zutena esan zuten, eta dudarik gabe horretarako eskubide guztia daukate. Baina, presoan itzulera eskatzeko, urtarrilaren 9an Bilbora joan besterik ez zeukaten. Gauza bakoitzak bere eguna eta lekua zeukan. Eta horrela ikusten ez duenak galde bezaio bere buruari, zergatik Bilbon ez zen euskararen defentsan aritu, zergatik ez zuen “Euskal Herrian euskaraz” abestu.

Euskararen defentsa eta presoan arazoa, borrokaren alde berdinean egon daitezke, baina, fronte ezberdinak dira. Euskarak guztiok behar gaitu abertzale dierenena eta abertzale ez direnena. Guztiok bizi bait gara Euskal Herrian eta guztioi bait dagokigu euskararen erabilpena zuzperzea. Ekiogun beraz, euskararen defentsari!


Ibane Abasolo



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldirikaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.

Zuzendaria: Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza.

Publizistak: Jone Oiangueren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085).

Banaketa: Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).

Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Otsailak 7an, San Blas eguneko meza

Urtero ohi denez, Arantzeta Zigarra auzoan, San Blaseko meza izango da goizeko 12:00etan. Jendea etorri ahala salda beroa banatuko da. Mezan opilak bedeinkatu ahalko dira, ondoren trikitilariak izango direlarik.

Urtean zehar auzolanean ermita konpontzeko lanetan jardun dute. Teilatua eta erretaula konpondu dituzte. Hala ere ez da ermita guztiz konponduta egongo egun honetarako. Teilatuaren konponketa 700.000 pta. kostatu da, hauetatik

udaletxeak 300.000 pta ordainduko ditu. Ermitaren konponketan aportazioa egiteko kontu hau zabalik dago **kutxan 0120107628**

Auzokideek gonbidapena luzatu nahi die egun honetan bertara etortzeko.



Auzolanean aritu dira San Blaseko ermita konpontzen.

laz jende ugari bildu zen ermitaren inguruan.



Otsailaren 12an danok mozorrotuta

Ihauteriak Elgetan ospatzeko aukera aparta

Urtero bezala hile honetan ihauteriak ospatuko ditugu. Azken bi urtetan bezala, aurten ere barikuan izango da gure herrian mozorrotzeko eguna.

Arratsaldean, haurrak izango dira beraien mozorroekin jaiari hasiera ematen lehenak. Urtean zehar kantuan batutako diruarekin, merienda goxoa jateko aukera izango dute.

Gaztetxean ere kontzertua antolatu da egun honetarako ZEA MAYS eta 12 TRIBU taldekoen kon-

tzertua izango da gaueko 22:30etatik aurrera.

Guraso elkarte eta parrokia, otsailaren 16rako "lantzeko dantzak" egiten saiatuko da iaz moduan. Hala ere ekintza hau aurrera eramango den ez da ziurra. Gurasoek esan digutenez, beste guraso batzuen borondatezko lana ez bada ezingo da aurrera eraman.

Udaletxetik taberna eta herritar guztiei egun honetan mozorrotzera gonbidatzen zaie.



Elgetan ere gero eta mozorro originalagoak ikusten dira.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Otsailaren 6an eta 7an Motorzaleen bilkura

Moto Club Arratek antolatzen duen bilkura hau, ohitura bihurtzen ari da elgetarrontzat. Aurten otsailaren 6 eta 7an izango da Motorzaleen Neguko V. bilkura.

Beste urteetan herri-tarren harrera oso ona izan denez aurten ere Elgetara etortzea erabaki dute.

Egitaraua: Otsailak 6an arratsaldeko 15:30etan izen ematea salda beroarekin. Arratsaldeko 17:00etan jokuak futbitoko kantxan. Iluntzeko 19:00etan "paseo baritimoa" herriko tabernetatik. Gaueko 21:00etan afora frontoian. Egunari bukaera emateko gauerdian sua egingo dute eta karajiloa banatuko dute.

Hurrengo egunean, goizeko



Herria motorrez beteko da aurten ere.

9:00etan gosaria izango da.

Izen ematea 2.000pta. da, lo egiteko tokia jartzeaz gain afora eta gosaria barne daudelarik. Neguko bilkura honek bost urte betetzen dituen antolatzaileek jende ugari etorriko dela uste dute.

Ihesari buruzko jardunaldia

Otsailak 6an ihesari buruzko ihar-dunaldia antolatu du Gaztetxeak. Ihesaren aurrean informatzeko ekitaldi ugari antolatu ditu. Lehendabizi "Kiss" pelikularen proiektzioa emango da arratsaldeko 17:00etan. Arratsaldeko 18:30etan Arrasateko Hies Ekimenak hitzaldia eskeiniko du. Bertan prebentzioaz, gaitza dutenek edukitako esperientziataz, etab. hitzlego da.

Madritetik Hiesa duten gaitxoaren zentsua egiteko nahia dago, honen aurka azaldu dira Udaletxea eta herriko beste zenbait elkarte.

Gaitza dutenei elkartasuna adieraziz. Honetaz ere jardungo dute hizlariak.

Hitzaldiaren ondoren, iluntzeko 20:00ak aldera merienda egongo da parte hartu duten guztientzat.

Jardunaldiari bukaera emateko Gasteizko La Patro antzerki taldeak "Leccion de Orgasmo I" antzezlan eskainiko du. Ekintza hau gaueko 21:30ak aldera hasiko da.

Lanordu bat Akordioaren alde

Abenduaren 26an, "XXI. mendeko akordioa: bai euskarari!" kanpainak amaiera ikusgarria izan zuen Euskal Herriko bost estadiotan.

Kanpaina ofizialki egun horretan bukatu bazen ere, sindikatuek eskatuta "Lanordu bat Akordioaren alde" ekimena otsailera atzeratu zen. Ekimen honen bitartez Hego Euskal Herriko langile guztiei dei egingen die Gizarte Erakundeen Kontseiluak, beraien lanordu bateko diru balioa euskararen plangintza estrategikoa aurrera ateratzeko eman dezaten. Era berehan, enpresei gutxienez bertako langileek jarri duten dirua jartzeko eskatzen zaie.

Ekimen hau guztiz borondatezkoa eta puntuala da eta behin bakarrik egingo da. Goibekokaletik euskararen alde lanordu bat ematera animatzen zaitugu.

"Z" zabortokien aldaketa

Berraondokuan eta Lasao kalean aldaketak izan dira "Z" puntuetan. Berraondokua sarreran zeuden ontziak Elkoro aurrean daude orain. Leku honetan zegoen zaborpoltsen bilketa puntua kendu egin da.

Lasao kalean Panaderokua Taberna parean zegoen "Z" puntua Lasao kaleko barrerara pasatu da. Zabor ontziak dauden lekura hain zuzen.

Udaletxeak zakarrak leku berrietara eramateko eskatzen du.

Kartetan jokatzeko giro egokia

W.C.

Kopa bat

Tel: 768093

Patxi Taberna

OSTATU JATEXKA

Gudarien Bide

Tel: 76 80 23

ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.

Karta.

Parteittiko San Bixente jaiak, giro aparta

Jendez gainezka egon zen pasa den domekan, hilak 24, Parteittiko San Bixente ermita. Eguerdiko hamabietan meza ospatu zen eta ondoren, ohi denez, Zabarteko aterpean, erromeria egin zen, jendeak nahiko lan eduki zuelarik tokia hartzeko salda, pintxo eta txakolinak eskuratuz eta aldi berean dantza saio batzuk egiteko.

Ez da falta izan, aurten ere, Kataideko txakolina Parteittiko jai hauetako gozagarri. Kataideko mahastiak martxan jarri eta gutxira txakolin aparta hau egiten hasi zirenetik bertan izan dugu urteko kose txaren lehen dastapena. Ez du hutsik egin Kataidek eta inoiz baino hobea ei zegoen. Halako kategoria duen ardoak mereziko luke ezagupen zabala izatea, izan ere "txakolinaren jatorrizko izendapen"etik

kanpo geratutako Deba Garaiko txakolin honi, berezko izaera lortzeko denbora iritsi zaiola argi baitago.

Erromeria alaia, jendeak etxeratzeko prixarik ez, eta Parteitti domekan ezagutu zutenak lekuaren edertasunaz harrিতuta. Zer gehiago nahi duzue!



Erromeria Zabarteko aterpean.

Hiru Hileta

Hiru hileta hamabi egunen barruan izan ditugu Angiozarren azpaldiko izena, Ilbelta, hobeto dagokion 1999ko urtarril honetan. Hilaren zortzian Valentina Aranzabal hil zan, Aldekona baserrikoa, 88 urte zituen.

Hurrengo egunean, hilaren bederatzian, Nikolas Agirrezabal hil zan auto-istripuz, Angiozarko kamiñoan bertan. 56 urte zituen eta ondo ezaguna zen bai angiozartar zein inguruko herrikoen-tzat. Kamioilaria lanbidez, baina kirolzale amorratua tartea harrapatzen zuenean. Motorrekin, aizkoljokoan, harri jasotzen, trotzan,... bai jokalaria zein antolatzaille lanetan ez zen geldi egotekoa. Eta horrela aitortu zioten ezagun zituen hainbat lagunek hileta mezan eliza gainezka egon baitzen. Gorpua elizan sar-

tzerakoan eta urtetzerakoan aizkolari lagunek omenaldia egin zioten aizkorak jasoz eta arkua eginez. Nikolas Pagomendi Elkarteko presidente izendatu berri zegoen aste bete lehenago. Haibat arlotan igarriko da bere falta denboraldi luzean.

Azkenik Maritxu Gallastegi (70 urte) hil zan pasa dan San Sebastian egunian. Guztiontzat ezaguna izan dugu Maritxu bere dendaren bidez. Txikitako diru manejuak, pisuaren gora-beherak, metroaren sekretuak eta beste hainbat gauza, konturatu barik berarekin ikasi genituen dendako sartu urtenetan. Azken urte hauetan gaixotasunak jota egon bada ere beti eduki du denda zabalik, guztion mesedetan eta eskertzekoa da bere benetan.

Suberauko bilera

Suberauko edo etxeen elkar-asegururako kideek ohi duten urteko bilera datorren hilaren 7an izango dute, eguerdiko hamabietan Parrokiako saloian. Hirurehun urte pasatako historia du elkarte honek, baserrien suteak ugariak ziren garaian, XVII. mendean, sortu baitziren Gipuzkoan zehar.

San Sebastian Kofradia

Ohi denez San Sebastian egunean ospatu zuten Kofradiakoak elkartaren eguna. Meza, kontuen garbiketa eta ondoren bazkarian elkartu ziren.

Kofradia honek historia luzea du bai Angiozarren zein Elgeta eta Uberan. Bostehun urtetan jarraian, 1482tik aurrera, ospatu da eta Kofradiako eguna gaur egun ezagutzen diren arauak edo ordenantzat orduan eman zizkien eta Errege Katolikoek.

Garai hartako paketez prozesuan kokatu behar dira kofradia hauek, Ahaide Nagusien arteko borrokaldiak bukatu eta biztanleen noblezia orokorra aitortu zeneko garaian, etxe guztien berdintasuna azpimarratu eta elkarren arteko loturak sendotzeko.

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Iragarri zaitez.

Tel:78.90.85

Faxa: 789043

Kamiseta mundiala gainera!!!!!!!
 Hau kamisetiau Nagore Moralesek eruango dau etxera eta baita beste bat be berak nahi dabena erregalatzeko. Bi kamiseta ta baita birentzako afarixa be. Zer gehixau gura dozue ba???????????



Etxe guztietan ez zan gure moduko ondo portauko Olentzero. Goibekokaleko lehiaketia jarraitzen dozenok erregaluak irabazteko gertu egon zaittie. Laster kamiseta gehixau ta sorpresatxo batzuk be emongo dittugu. Hurrengo irabazliai beste pare bat kamiseta emongo dotzaguz. Ligatzeko kamisetaik onena gura dozula? Badakixu, idatzi Goibekokalera.


Orainguan be ez da zailla asmau biharrekua. Zer da hau?

Erantzunak jakin ezkeru idatzi. Gure helbidia honezkero jakingo dozue, baiña badaezpada be emotera goiaz berriro:

Goibekokale Elgetako Aldizkarixa, Salvador kalia 2. Kultur Etxia.



Proiektu barrixen gainian zer eritzi dakazu?



Jose Egizabal
Bihargiña (54 urte)

Proiektu batzuk egiño dira, baiña beste batzuk hor geldittu-ko dira. Adibidez Asentzioko parkian proiektua onartu zanian batzuk firma batzen ta ibili zian proiektua atzera botatzeko. Ikusi egiñ bihar zer pasatzen dan denboriakin.

Pentsatzen dot batzuk aurrera eruango dirala ta beste asko atzera botako dirala, diru faltagaittik edo beste arrazoin batengaittik.

Nerea Jzagirre
Bihargiña (30 urte)



Ana Mari Arrieta
Etxekoandria (31 urte)

Ez dakitt ze proiektu barri dagon, baiña badare proiektu batzuk biharrezkuak diranak ta diru arazuak dirala ta egitten ez diranak. Hori ez dot ondo ikusten. Dana dala, ez nago ondo informauta ta ezin neike esan.



Jose Luis Urzabala
Jubilata (62 urte)

Ez dakitt ezer horren asuntuorren gainian. Udaletxian gauzak dira ta eurek jakingo dabe zer egitten daben. Proiektu batzuk aurrera eruango dira, baiña beste batzuk ez.




Mente Elorriaga
Etxekoandria (56 urte)

Nere ustez denboriakin danak egiñgo dira, hasi behintzat danak egiño dirala pentsatzen dot. Bihar bada ez da danen konformidaderako izango baiña...

Proiektu asko hasita dare, baiña ikusi egiñ bihar zer pasatzen dan. Batzuk ez dot uste has-teko itxura haundirik dakenik, baiña beste batzuk seguruenik bukatu egiño dira.

Jabier Telleria
Bihargiña (58 urte)



ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETATA ETA
ELJAZIO SISTEMAK
Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

E
HARATEGIA
A
S
T
San Roke 6
Tel: 768168

Andoni Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola
V
I
V
Janari
denda

M^a
ESTHER
Tel: 76 81 67

Aries: Buruan hainbeste gauza dakazak/dakazan ta ez dok/don urtetzeko moduik ikusten. Zegaittik ez dotzak/dotzazan batenbati kontatzen?
.....

Taurus: Osasunai ez dotzak/dotzan kasoik be egitten, ta badakik/badakin hortik etortzen jatzuzela arazo haundiñak.
.....

Geminis: Hire berbak ondo neurtuta egitten dittuk/dittun baiña sarritan seguru egotia gura izaten dok/don baiña ezin dozula konturatzen haiz.
.....

Cancer: Dana kontrolauta eukitzia nahi izango dok/don, baiña azkenerako hankazgora ipiniko jatazak/jatazan gauza guztiak.
.....

Leo: Buruakin ez beste edozerekin pentsauta egitten dittuk/dittun gauzak, konturatuko hitzan zenbat muturretako hartu dittuan/dittunan.
.....

Virgo: Denbora guztian zeozer egitten hago ta aldamenian dagozenak be hire martxa igualian ipintzia nahi dittuk/dittun. Hori da hori buruaustia!!
.....

Libra: Pasiñuakiñ beteta hago ta ez dok/don besteik ezertan pentsatzen. Hire ingurua beste modu batera be beittu bihar dok/don.
.....

Scorpius: Sasoi onak dittuk/dittun honek beste jente bat ezautzeko, gañera hiri komeni jatak/jatan beste aire batzutan mobitzia.
.....

Sagitarius: Zeure gustoko pertsonia-kin zagozenian urtzeko puntuan egoten haiz. Lasaitu hadi!
.....

Capricornius: Librak pasiño larregi bajakak/bajakan, hik bapebez! Bizimodu honetan pasiño piskatek askotan aurrera segitzen laguntzen jok/jon.
.....

Aquarius: Ez dok/don nortia galdu bihar horri pertsoniorri begira, beste millaka jaozak/jaozan inguruan konturatzen ez haizen arren.
.....

Piscis: Buruak bihar asko egitten jok/jon, baiña bihotzak be bajakak/bajakan toxika gure pentsamentuetan.
.....

Julian Markiegi Bihargiña (39 urte)

- Zenbat urte egunkariak saltzen?

Bizi guztixa. - Ta kioskuan? 12urtian.

- Zer aldatuko ziñuke zure lanetik? Ezebeiz.

- Langilliana ala ikaslían bizimodua da hobia?

Ikaslíana.

- Zeintzuk dira gozozaliauak, neskak ala mutillak?

Danak antze-
ra.

- Konfesau zeinken bizio bat.

Ez dakat konfesatze-
zako moduko bizioik.

- Noiz izan zan juergatik eguna zabaldua etorri ziñan azkenengo aldixa?

Sasoi batian egunero baiña aspaldixan ez.

- Aman etxian bizi-
tziak badaka benta-
jaik? Bai.

- Etorkizunian ezkon-
duta ta seme-
alabekin ikusten dozu zeure burua?

Ez, baiña bizimoduak buelta asko emon leikez...

- Egunen baten ikusiko zaittugu bizar barik? Ez dot uste, neure aurpegixa eza-
gutu be ez

neuke egiño

bizar barik.

- Fan zara aurtengo lehenengo beherapenetara? Ez.

- Egunak dakan momentu-
tuik onena? Gaba. - Ta txar-
rena? Goixa.

- Irakurtzen dozu saltzen dozun aldizkarixeta-
kon bat? Normalian ez, batzutan "Muy Interesante".

- Badakazu gidatze-
ko baimenik? Ez.

- Zer egiño ziñuke 200

millioi tokau ezke-
ro? Lana laga.

- Zenbat pagau ziñuan zeuretako erosi ziñuan azkenengo Ducados paketia?

Habano erretzen neban ta 150 pta balio zeban.

- Nora juango ziñake diruai begiratu barik? Austriara.

- Gustauko jatzun Elgetako alkatia izatia? Ez.

- Gogoratzen dozu neska bati emondako lehenengo laztana? Bai.

- Zer da neska batek derri-
gorrez euki bihar dabena? Zintzotasuna.

- Ikasteko aukeria izan ezkeru zer ikasiko ziñuke? Informatika.

- Sekula akordau jatzu kioskorako telebista portatil bat erostia? Ez.



Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua
Igeltzeritza lanak
Teilatua
Etxaurreak
Sukaldeak
Komunak
Otzango Behokoa Baserria. Tel: 860156

Elgeta 2000

Datorren mendeko Elgetak beste itxura bat izango du. Horrela dirudi behintzat Udaletxeak dituen proiektuei gainbegiratu bat emanez gero. Industrializazioaren lehenengo fasea amaitutzat eman da eta orain datorren urteetan "Kultura indartzeko ahaleginak egin behar dira" Patxi Basauri alkateak berak adierazi digunaren arabera. Erabilpen askotarako gelaz gain, hainbat ika-mika sortu dituen eta sortuko dituen Asentzioko parkea, polikiroldegiaren bigarren fasea, Artekaleko industrialdea eta beste zenbait proiektu ditugu. Burutuko al dira proiektu hauek guztiak herriarentzako? Onuragarriak dira? Behin eta berriz norbere buruari elgetarrak egingo dizkion galderetako batzuk dira hauek. *Goibekokalek* proiektu guztiak banan-banan aztertu ditu herritarrak informazio sakonagoa izan dezan.

Asentzioko parkea

Anbizio handidun proiektua

Alkatearen esanetan datorren agintaldian hasi beharko litzateke

Egin beharreko proiektuetan ika-mikarik sortarazi duenik bada Asentzioko parkearena dugu. Proiektu hau duela urte mordoxka martxan ipinitakoa da. Gaur egun ez aurrera ez atzera baldin badago ere 1991kako apirilaren 30ean Gipuzkoako Diputazioak onartua dagoen proiektua da.

Patxi alkateak gogor erantzuten die garai batean proiektu horren aurkako iritzia agertarazi zutenei. Bere ustez polemika guztia, "Artifiziala eta manipulatu izan zen. Hau da, garai hartan jende guztia ekologista bihurtu zen". Ekologistatzat hartu

zituen guzti haientzako erantzuna zera izan zen: "Herrian hainbeste ekologista egotearekin oso pozik sentitzen nintzela adierazi nien". Eta ez dira hor geratzen Patxiren esanak. Bere ustez badago beste arrazoi bat ere: "Jendeak Asentzio aldean txaletak egitea nahi zituen eta orain, proiektu horren erruz, ezin da etxerik egin. Niri zer pentsarazi sortzen dit...".

Zenbakiei gaibegiratu bat emanez, aipatu, parke honek Arrasate eta Angiozarko bidegurutzetik ermitaraino doan esparru publikoa 40.000 metro karratukoa izango dela eta babes esparrua 380.000 metro karratukoa.




Zerbitzuei dagokionez janlekuaz gain, aparkalekuak, zelaiak (futboleantab. aritzeko), aterpe antzeko bat eta paziatzeko lekuak izango litzuzke.

Guzti horren kostoa, 1990.ean eginiko aurrekontuan, 91.000.000koa izango litzateke. Gaur egun noski, garestiagoa.

F . O . R

Kalitate kontrola
Piezei azken ukituak

Tel: 76 80 38



salbador
19
behea

IBAIBA- RRIAGA

GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

EROSLE

M. Asun Agirre


Salbador 26. Tel: 768190

Erabilpen askotarako lekua

Hastear dago bigarren fasea

Aurrekontua 90.000.000koa bazen ere 38.000.0000 gastatuko dira

Hurrengo urteetan Elgetak kulturaren aldeko apostua egingo du. Orain arte Udaletxearen indarrak industria bultzatzearen aldekoak izan badira ere, industrializazioaren lehengo fasea bete ondoren kulturak hartuko du protagonismo nagusia. Apos-tu honen epizentrua auditoriuma izango da. Eraikuntza honen bigarren fasea datorren martxoan edo apirilean hasiko da eta lau hileren buruan amaituko dela uste da. Erabilpen askotarako gelaren ezaugarri nagusiak honoko hauek izango dira: 350 pertsonantza-ko lekua izango du, eskenatokia 11,50 x 10,00 ekoa izango da eta horretaz gain hiru sarrera eta



larrialdietarako irteera izango du legeak agintzen duen bezala.

Batez ere elgetarron beharrei erantzuteko egingo da, baina kongresu eta antzerako ekitaldiak egiteko aukera ere izango da. Hasiera batean

oso polita dirudien proiektu hau askorentzako harrigarria izan daiteke kontutan izanda kulturara zuzenduriko aurrekontua 400.000 ptakoa dela. Gai honetaz galde-tzerakoan zera eran-tzun zigun alkateak, "Udaletxeak kulturara zuzendu-

ko duen aurrekontua handiagoa izango da. Poligonoaren lehen fasea bukatu ondoren kulturaren eta turismoan sakondu behar du Udaletxeak". Hau guztia aurrera eramango lukeen pertsona, printzipioz behintzat, Patxik berak adierazi bezala, dinamizatzailea izango litzateke.

Hasieran aipatu bezala 38.000.000koa izango da aurrekontua, lehen unean egindakoa alde batera utziz. Alkatearen ustez hasierako proiektua larregikoa zen, " Superproiektu bat zela uste dut, beharbada Elgeta batentzako handiegia. Aldibereko itzulpena, bonbilak leku guztietan..."

Polikiroldegia

Datorren urteetan daukagunarekin jarraitu beharko dugu

Erabilpen askotarako gelarekin gertatu bezala, hasierako proiektua ez dator bat errealitatearekin

" Tekniko batzuek lagunduta, ni neu, herri ezberdinetako igeritokiak ikusten aritu nintzen eta argi geratu zen estalitako igeritoki bat egitea (hasierako proiektuan isladatzen

zen bezala) ezinezkoa dela. Beharbada estali gabeko igeritoki bat egitea posible litzateke, baina horrek ere, galera handiak sortaraziko litzateke herriari". Alkatearen adie-

razpen hauek irakurri ondoren argi dago datorren urteetan bigarren fase honek ez duela aurrera egingo.

Hirugarren fase batean atletismoko pista

batez inguratua egongo litzatekeen futbol zelaia eta teniseko pistak egingo liratezke. 89.000.000ko aurrekontua du bigarren fase osoak. Itxaron egin behar.

INAKI JATETXEA

Leku paregabea, eguneko menua

Tel: 943 76 82 83

Astelehenetik ostiralera zabalik goizeko 9:00etatik

GRUPO IFA

Produkturik onenak, prezio onenean

ALDI

Tel: 76 80 98.

Ereporfata

Goibekokale 42.zk

Helburua lehenengo errekarar bitartean dagoen lursaila industrializatzea den arren, printzipioz, badirudi hasiera batean lortu nahi zena lortu dela. Herrian, gizonezkoen artean behintzat, ia ez dago langabeturik eta hori pozgarria dela deritzo Patxik, "Azken urteotan maestria eta antzeko ikasketak burutu dituztenak herrian bertan lan egiteko aukera izan dute. Horretaz gain, hosteleri-tza ere bultzatu da. Hau gutxi balitz etorkizunera begira etxebizitzetan eragina izan dezakeela uste dugu, kanpoko lan-

Hasierako helburuak bete dira

Gestioak bizkortzeko nahiarekin "Elkarte Publikoa" sortzen ari da

gileak hona etorri baitaitezke bizitzera".

Badirudi, negoziaketak aurrera joanez gero, fabrika indartsu bat bertara etortzea. Hala ere, negoziaketok geldi samar daude. Izan ere, industria

jartzeko den lurraren metro karratuko salneurria asko igo dute saltzaileek eta horrela kolokan jarri dute lantegi handienaren etorrera. Badaude ordea, beste eratako enpresa batzuk horren

handiak ez direnak eta hauek ere bere lekua izango dute esparru horretan. Enpresa horiek -metalen salerosketa...-, dituzten ezaugarriengatik, baldintza batzuk bete beharko dituzte, "Fabrika horiek estali gabeak izatean estetikoki zenbait baldintza bete behar dituzte: belar pantailak etab. Ku-tsadura aldetik ere oso baldintza zorrotzak bete behar dituzte eta ez dugu ahaztu behar Aixola bertan daukagula", adierazi digu alkateak.

Pagatzako industrialdeko urbanizazio lanak 270.000.000 ptako kostoa izan dute, osoki fabrikek ordaindua.



Etxebizitza berriak eta industria gehiago

Esparru honetan enpresa txikiak jarriko dira, Berraondokuan dauden eraokoak

Lehen Elkoro zena, gaur garageak dira, eta ondoan dagoen aparkalekuan etxebizitzak egingo dira. Lursail honen jabeekin akordio batetara helduak dira eta denbora gutxi barru hasiko dira eraikitze lanak.

Industrializazio prozesua geldoago badao

ere 2.000. urterako obrak hastea espero da. Industrialdea 1.357 metro karratukoa da, hau da, lehen Leonen garagea zenetik Zeletaraino gutxi gora-behera. Horren atzean bariantea joango litzateke eta bide bestealdea ere industriarako erabiliko litzateke.



HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

Futbitoa hasi zen urtarrileko lehenengo astean

Finalak ekainaren 26an izango dira

1999-ko futbito txapelketaren bi ihardunaldi jokatu dira jadanik. Mutiletan zortzi talde ditugu, hauek lau elgetarrak (Txapela, H.H.H., La Kokotxa eta E.H.A.), hiru bizkaitarrak (Urien, Bar el Arco eta Alferrak), eta azkena Angiozar, iazko irabazleak. Oraindik goiz da sail-

kapenak egiteko, talde guztiek ez baitituzte partida guztiak jokatu.

Nesketan, iaz baino talde bat gehiago izango dugu. Hiru taldeak Elgetakoak dira: Gu gaz gu, Joixon bertan, eta Aldebresak.

Gabonetako pilota jaialdi arrakastatsua

Jaialdia, gurasoen elkarte, Ozkarbi eta udaletxeak antolatu zuten

Bost egunetan genituen elgetar gazteak herriko pilotalekuan lehiatzen. Jaialdiari, abenduaren 24ean jokatu ziren finalek eman zioten amaiera. Egun honetan giro polita ikusteko aukera izan genuen. Jaialdian parte hartu zuten haur guztiek izan zituzten sariak jasotzeko aukera.

Sari banaketarako, ikusmin handia sortu zuten Elgoro eta Etxaniz pilotariak etorri ziren.



Eneko Ojanguren saria jaso eta gero.

Pilotalekua berdez pintatuko da

Oraindik erabakiorra ez den arren -aurrekontu bakarra eskatu da eta beste bi behintzat eskatu beharko dira- badi-rudi maiatzerako berdez pintatuko dutela pilotalekua. Pintatzeak (milioi bat) eta argi berriak ipintzeak (3 milioi) lau milioiko kostoa izango du. Esan bezala, maiatzerako amaituak egon beharko liratezke berrikuntza lanak, Euskal Telebista lehen partidak eskaintzen hasi orduko. Teilatuko lanak aldiz -denok dakizuen bezala itoginak daude zazpigarren kuadro inguruan- ez dira berrikuntza hauen artean sartzen ardura-dunek adierazi bezala ez baita ezinbestekoa bere konponketa.

Saskibaloian ondo

Sailkatze fasean zenbait partida galdu eta gero, elgetarrak ligako lau partidak irabazi dituzte segidan. Azken garaipena joan zen igandean lortu zuten 33 eta 27ko emaitzarekin. Orain elgetarrak sailkapenburu daude.

Iragarri zaitez.

Tel: 78.90.85

Faxa: 789043

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

IAPAM

Soldadura homologatuak

Hoditeria

Erremitteritza

BERRAONDOKUA INDUS., 8 - ELGETA

Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

IRAMA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262
tel: 789057-768025

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.



tel: 768273

Juan Mari Arantzeta: "Zaila ikusten dut herrian beste Aitor Elkoro bat izatea"

14 urte profesioaletan. Jose Iñazio Juaristi eta Aitor Elkororekin batera Elgetak izan duen profesional bakarra. Dirudienez duela urte asko Gallastegik -Sabino Gallastegiren anaia- ere jokatu zuen partidaren bat. Beraz, nor Juan Mari baino aproposagoa Elgetak izan duen pilotaririk onenaren botillero izateko.

- Noiztik Aitorren botillero bezala?

"Asegarcerekin" estreinekoz jokatu zuenetik. 1992. eko urriaren 5ean izan zen hori.

- Nola hasi zinen botillero lanak egiten?

Denok dakizuen bezala, profesioaletan debuta egin zuenean Aitorri ez zitzaizkion gauzak lar ongi atera eta afizionatu mailara itzuli zen. Harrezkero, lagunarteko elkarrizketa batzuk izan genituen. Penagarria zen Aitorren moduko pilotari bat inor gabe egotea eta gutxi gora behera horrela hasi zen. Aurreikusitako gabeke zer bait izan zen.

- Zein da botillero baten eginkizuna?

Batez ere pilotaria partidatik kanpo dagoenean zuzentzea izaten da gure eginkizun nagusia. Kritikak daudenean pilotariari ardura kendu eta kritika horiek bizkarreratu beharra ere izaten dugu.

-Zenbaterainoko garrantzia daukazu?

Ez dakit. Uste dut botilleroaren presentzia askotan "figuratiboa"



dela. Momentu batzutan badu bere garrantzia baina oso erlatiboa da.

- Zergaitik egoten da botilleroaren figura banakako partiduetan eta ez ordea binakakoetan?

Binakako partidetan ez dago botillero beharrik. Bikotea izanik, batak bestearen botillero bezala jarduten du. Egocera hau oso argi ikus daiteke gaur egun. Aitorrek

go txapelketan aurkariak baino gehiago pilotalekuak egin dio kalte, batez ere Logroñoko Adarragak. Pilotaleku horrek ez du irteerarik frontisean eta hori oso onuragarria da Titinek duen jokorako. Partida hura Eibarren edo Beasainen jokatu izan balitz Aitor garaile aterako zela uste dut. Dena den, egia esanda, Aitorrentzako Titin da aurka-

Pilotaria partidatik kanpo dagoenean zuzentzea izaten da gure eginkizuna. Kritikak daudenean pilotariari ardura kendu eta kritika horiek bizkarreratu beharra ere izaten dugu.

pilotari gazte batekin bikote egiten duenean eta pilota aldatzea erabakitzero pilotari gazteak Aitorren aholkuak jarraitzen ditu. Hau da, Aitorrek botillero lanak egiten ditu.

- Zein balorazio egingo zenuke Aitorren 4 t'erdiko txapelketari buruz?

Nire balorazioa oso positiboa da. Aurten-

korik zailena.

- Ez al duzu uste enpresen banaketarekin partidaren kalitatea asko jeitsi dela?

Partiden maila asko jeitsi da. Ez dakit enpresariak nora begira dauden. Nire ustez diru asko ari dira galtzen. Zenbait partidetara jende asko joaten den arren larunbatetan Bergara joa-

tea besterik ez dago jendearen erantzuna zein den ikusteko. Azken finean galtzailea zaletua da.

- Zein irtenbide du arazo honek?

Uste dut enpresak elkartu egingo direla. Orain federazioak sartu dituzte liskarraren erdian. Zertan dabilzan ere ez dakite. Umekeria bat dela deritzot. Azken finean politika eta politikarien menpe dago arazo guztia.

- Hurrengo zita manomnista. Ilusiorik bai?

Iazko txapelketarekin alderatuz ilusio handiarekin. Pasadan urtean asko sufritu zuen kantxan Aitorrek eta aurtent berriz, gozatzen ari da. Oso ongi ikusten dut.

- Irabaziko al du Elkorok banakako txapelik?

Azken urte haueetan punta-puntan ibili da. Txapeldun izatea oso zaila da. Dena den, banaka edo binaka txapelen bat jantziko duela uste dut.

- Nola ikusten duzu pilotaren etorkizuna?

Gerenteen lana oso eskasa dela deritzot. Diru asko galtzen ari dira. Penagarria da txapelketa oso onak antolatzeke aukera izanda dabilzan moduan ibiltzea. Enpresak ez badira elkartzen zaletuak frontoira joateari utziko dio.

- Eta Elgetan?

Ez dut zaletasunik ikusten. Gazteak futbolearen jokatzeko dute. Pilota, kanpotik ikusten dena baino gogorragoa da. Beste Aitor Elkoro bat izatea nahiko zaila izango da.

ERREKALDIA

Ermita: San Kristobal

Jaia: Uztailaren 10ean

San Kristobal egunaren bezperan edo bezperaurrekoan hasten dira jai antzean pinua jasotzearekin. Hau iluntzean egiten da eta ondoren auzoko gazteek txokolate jana egiten dute.

Normalean bi edo hiru egunetan izaten da erromeria, horietatik San Kristobal eguneko auto bedeinkaziñoa delarik ekintzarik famatuena (kotxeak lorez adornatuta bide baztarrean egoten dira parkatuta eta abadeak banan-banan bedeinkatzen ditu). Dantzaldiak gauz izaten dira eta San Ferminetara joan ez direnen topaleku.

Gainera martxoko egun baten meza ospatzen dute auzokoen alde (Hermandadeko Meza) eta beste meza bat maiatzak batean.

Auzotarren bat hiltzen denean bederatziruureneko meza ere bertan ospatzen da.

Baserriak eta etxeak:

- Loidi Etxebarri
- Loidi
- Loidi Bolu
- Loidi Bolu berria
- Askasibar
- Askasibar Bolu
- Askasibar Bolu berria
- Belastegirena
- Meltxorrena (Unamuno Berri)

- Aldai Etxebarri
- Aldai Gaiñekua
- Aldai Aurrekua
- Aitzol
- Gaztelu
- Aldai Azpikua
- San Kristobal
- Elkone (Elkoro Berezibar)
- Bitzibar (Berezibar Erdikua)
- Bitzibar Barrena (Berezibar

- Barrena)
- Edui (Eduegi)
- Amuskibar
- Amuskibar Bolu
- Gaittao Aldekua (Garitano A.)
- Gaittao Gainekua (Garitano G.)
- Gaittao Erdikua (Garitano Markezkoa)
- Gaittao Barrena (Garitano B.)
- Osingain

San Kristobal elizaren inguruan elkartzen den auzoak azken urteotan, izendapen ofizialen arabera, Aldaiegia izena hartu badu ere, berez Aldai azpikotik hasi eta Aldai-Etxebarrirainoko mendi hagiaren deitura izango litzateke toponimo hori. Baina, hainbat lekutan bezala, zati batek edo baserri batek auzo eta herri osoari izena ematea oso normala izan da (esate baterako Zarauz eta Lazkao herrien izenak bertanko jauntxoan dorretxeetatik datoz, edo hurbilago Elorregi eta Muinondo ere etxe bakarren izenetik hartu du auzoak izena). Beraz hiru etxe hauetatik eta zehatzago Aldai azpikoa etxetik sortutako izena genuke Aldaiegia.

Baserrien garaia Euskal Herrian XV. mendearan bukaeran hasi zen, baktez prozesuaren ondorioz basoa zen lekuetan lasai bizitzeko aukera sortu



Aldai-Azpikua eta goraxeago Aldai-Gainekua.

zenez. Ordurako bazeuden han hemenka dorretxeak eta hauek jauregi bihurtu ziren edo baserri soil, haundiki haiek hiribilduetara joan zirenean bizitzera han egindako palazioetara, beti ere prestijio bila.

Aldai Azpikua

Bere egitura dotore eta proportzionatuak dorretxe haien irudia dakar gogora, baina etxe hau baserri betekizunetarako dago eraikia, bizilekua

hegoaldera duelarik eta baserri gehienetan bezala etxearen alde haundiena ganaduantzako kortak, sabaia eta abarrek hartzen dutelarik. Ez da falta sutearen aurkako horma "medianeroa" ere, garai batetik aurrera (XVII. mendetik) derrigorrezko egiten dena bizilekua (gelak, sukaldea,...) eta korta eta sabaia bereiztuz.

Aldai azpikua bi arkudun etxea dugu, nahiz eta bata estalita eduki, bertan sukaldea eginda dagoelarik. Arku bat baino gehiago eduki eta estaltzearena auzoko hiru etxeta egindako lana da, espazio faltak edo erosotasun berriaren bila joatean.

Arku errenazentistak tartean IHS ikurra babeslea dutelarik nortasun berezia ematen diote etxari berez duen "porte" inponentearekin batera. Gainera sotodun etxea da, hau da, aldapa aprobetxatuz etxazpian garai

Aldai azpikua bi arkudun etxea dugu, nahiz eta bata estalita eduki.



Aldai Gainekua.

baten bodegatarako balio zuen aldea dauka bere arkudun atearekin. Hemen egiten zen sagardaoa eta baita txakolina ere halako baserrietan. Bailaran badira hainbat etxe atal hau dutenak: Migelena, Askasibar, Lamarain, Eduegi,... denak familia indartsuen jatorri izandakoak.

Gaur egun Eguren familia bizi da bertan, uztartutako kimu berriak ere badirelarik: Alberdi-Eguren eta

Aldai Gainekua

Aldai gainekua XVIII. Mende bukaeratik aurrera egiten hasi ziren baserrien ereduak dugu, baina ordaurarte egiten zirenen eredu jarraitzen duena: arkua badu eta ataria baina arlanduz egin gabe. Eredu hauen hurrengo baserriak ataririk gabekoak dira, XIX. mendean hedatu zirenak eta auzoan Aldai Etxeba-

rra eta Aldai Gainekuan aurrean dagoen etxea bezalakoak, etxe txikiagoak eta egitura pobreagoak.

Baserriak basoan hedatzeari ekin ziotenean apurka joan ziren terrena irabazten eta aurrez bizileku ziren zurezko etxeen eta harrizko borden ordeztu eraiki ziren etxe galant hauek.

Egituraz beste etxeen bide berdina jarraiki erai-

kuntzaren sistema eta erabiltako harria Parteitiko-koen parekoa da: harri xehe eta lusezka eta mortero horixka. Nahiz eta orain etxea kanpokaldekizko zuriz pintatzeko ohitura egon, garai baten denek eduki zuten lur kolore goxo hori, hainbat etxeetan oraindik nabari dena.


Aranzabal-Unamuno familia bizi da bertan, bertako abizena Unamu-

no izan delarik azken mendean.

Aurrekaldean duen etxea, esan bezala, maizter etxea izan zen bere denboran. Berrio-Otxoa familia bizi izan zen 1970. Hamarkadararte, geroztik hutsik dagoelarik.

Aldai Etxebarri

Etxe hau ere 70. hamarkadatik hutsik dago, bertan bizi zen Iturrikastilo familiak Bergarara alde egin zuenetik. Etxe txikia beste batzurekin konparatuz mendian gorantz egoteak eta bere izenak ere nabarmen uzten du bere berritasuna. Besteek ez bezala Pasa den mendearen hasieran eraikiko zuten gaur egun duen itxurarekin mendi aldeko lur hauek produkzioan jartzeko asmoz. Berrehun urte geroago garai hobekoak itxaroten dago, beste berpizkunde baten ametsetan.



Aldaiegia eta atzean Parteitiko baserriak.



Danok batera

ko giñuan. Gu bai mozo-luak gu!. Eta gaiñera horrek, futbol seleziñua edukitziak, dakan inportantziakin.

Danok batera, alkarrekin, anaittasun, batasun eta alkarratze generalian goiaz azkenaldixan gure herrixan askatasuneruntz. Hau da markia, hau! Gu bai onak, gu! Aspaldi egiñ biharrekua egiñ dogu azkenian eta oiñguan bai, lortuko dogu lortu biharrekua.

Ez dakitt oiñ arte zeri demonio begira egon gazen. Oiñgo hau oiñ dala hamar urte egiñ izan bagiñu, independentziaik igual ez, baiña gutxienez futbol seleziñua edo euki-

Baiña txarrena da geu alkartu gazenian bestiak be alkartu egiñ dirala Aspaldi PSOE ziran harek lehenengo O galdu zeben eta oiñ ixa S be galdu dabe eta euren zeregin bakarra España defenditza da eta hor dabiz jo ta fuego bestiak be danak alkarrekin.

Zoritxarrez beste bestiak, PPkuak, listuaguk dira eta España defenditziak aparte euren diruen arduria be hartzen dabe. Hori dala Errenta



Deklarazinua zelan egiñ bihar dan erabakitze orduan ez dabe bape erreparoik euki abertzaliek, batzugin, bat egiñ eta hori legioi aprobatzeko.

Eta abertzaliok, lehenguak, esan bai danok alkarrekin fan bihar dogula, baiña diruak, bakoxtak zenbat pagau bihar daben erabakitze orduan lotsa gutxi euki dabe espainolekin bat egtteko. Izan be, diruak aberrixa baiño lehenaukuak direla aspaldittik dakixe.

Eta beste abertzaliok jo ta fuego herrixa askatzen. Beste ezertarako astirik hartu eziñik. Hau da zeregina hau! Eta ni lako listuak zatarkerixa honek esan bihar, berriro be zelako aldrebasa naitzen erakutsitxa. Hau da hau.

Jabier Arantzeta



Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.


Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel 768078



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009



Erretratua: Miren Atxotegi

San Juanetako lore txortia

San Juanetan elizara lore txortia bedeinkatzera eruateko ohiturria ixa galdu-ta dago. Ondiokan be baserrin bateko neskatillan batek eruang dau, baiña ez da lehengo gauzia.

Hau erretratuau oiñ dala 28 bat urte etaratakua da, bertako erropak erakusten daben moduan.


Honek txortok urte osuan trumoietatik, oiñaztuetatik eta antzerakuetatik babesteko bedeinkatzen zian. Bazian txortako pusketa bat sutan erretzen zebenak be trumioia zanian.

Txortia egittko baserriko lorak, berakatz freskua, garixa eta arto ladariak erabiltzen ziran. Txortian txortena zintta zuri batekin batzen zan, txortenan azpikaldian berakatz burua bistan lagata. Erretratukuek be halaxe egiño zeben.

Goikuak: Isabel Azula, Mari Jose Inza, Amaia Elortza, Mila Elortza, Mari Jose Lonbide, Mari Glori Belastegi.

Behekuak: Ana Jesus Loidi, Izaskun Eguren, Marilu Belastegi, Miren Atxotegi, Idoia Eguren, Erantzazu Eguren.

Oh.: Bialdu etxian dakazuen erretratuak hemen atalian agertzeko. Agertu eta gero bueltauko doguz. Aurrez eskerrik asko.



BERRAONDOKUA INDUSTRIALDEA

SALBADOR KALEA

UDAL ETXEA

PARROKIA

BERGARA

GURE-BORDA